

# “Mirariak” eskatuko dituzte Sondikan

Maiatzaren 25ean “Ostegun miraritsuak” ekimena martxan jarri zuten Sondikan. Ekimena Xelo Bosch eta Cyrille Larpenteur artistek eta CONSONNI arte ekoizpen-etxeak bultzatutako proiektua da eta maiatzaren 31ra arte iraungo du.

Bilboko aireportua Sondikan eraikitzeak, lehenago, eta handik Loiura eramateak, geroago, eragin nabarmena izan zuen herrian. Eta Sondikak nortasuna galdu duen jakiteko, herritarrek galdera honi egin beharko diote aurre: Sondikaren izaera aldatu egin da, edo jakin izan dugu Sondika berria eta gure nortasuna uztertzen?

“Ostegun miraritsuak” proiektua Luis G. Berlangaren *Los jueves, milagro* filmean oinarritzen da, eta sondikarren ilusioak aditzera ematea du helburu. Horretarako, mirari tailerrak egingo dira maiatzaren 31ra arte. Tailerrok herritar guztiei daude zuzen-

duta eta bertan zelango Sondika nahi duten aztertuko dute parte-hartzaileek, pozik dauden bizi diren herriarekin.

Horrezaz gainera, herritik pote batzuk jarriko dira, sondikarrek euren iradokizunak eta gurariak han utz ditzaten. Poteok ekainaren hasierara arte izango dira leku hauetan: liburutegian, Gaztelekuan, Kultura Etxean, Kultura Aretoa I eta IIan, kiroldegietan eta herriko taberna eta dendetan.

Ekainean herri-paella jana egingo da eta bazkari horretan tailerretan egindako lana aurkeztuko da jendaurrean. Era berean, gurariak batzen jarraituko dute proiektuaren arduradunek. Tailerretan eta poteetan bildutako gurariak urriaren 2an eta 3an emango dira aditzera. Ekitaldi publiko batean ezagutuko dute sondikarrek nolako asmoak dituzten euren herriarentzat, eta nortasuna zenbateraino galdu duten.



## Kirola, gero eta hurbilago txorierritarrengandik

Bizkaiko Foru Aldundiak urteak daramatza “Kirolari ateak zabalik” jardunaldia bultzatzen. Ekimen horrek kirola herritarrei hurbiltzea du helburu, eta gizartearen arlo guztietan sustatu. Txorierrik ere bat egin du ekimenarekin, eta ekainaren 14rako hainbat ekintza antolatu dira herrietan.

Sondikan, adibidez, ur-puzgarriak, squash txapelketa eta umeei zuzendutako aerobic maratokia egongo dira Artebe kiroldegian. Era berean, doan sartu ahal izango da igerilekuetara. Ekintzak goizeko 10:30etik aurrera egingo dira.

Derion ere kirol ekintza sorta zabala antolatu dute, herriko talde eta elkarteentzako laguntzarekin. Besteak beste, hauek edukiko dituzte herrian: xakea, aerobica, bizikleta, futbitoa, two ball-a, pilota eta arku-tiroa.

“Kirolari ateak zabalik” ekimena San Tomas jaien egitarauaren barruan egingo dute aurten Zamudion. Ekintzak goizgoizetik hasiko dira eta euren artean, hauek aipa ditzakegu: ibilaldia ermitetik, boloak, igel-toka, petanka eta arku-tiroa.

## Xake Nazioarteko Opena, Derion

Derioko Xake Taldeak ‘San Isidro’ Xake Nazioarteko Opena antolatu du hamai-kagarren aldiz. Opena maiatzaren 31n, goizeko 9:30ean, izango da kiroldegian, eta bertan Euskal Herriko xakelaririk onenek ez ezik Estatu eta nazio arteko mailakoek ere hartuko dute parte.

Antolatzailek ahalegin handia egin dute aurten sariak hobetzeko. Horrela, 27 sari emango dira; herriko xakelaririk onenak, betetanorik onena eta 14 urte baino gutxiagoko xakelaririk onena, tartean.

Izena ematea 655 72 79 79 telefono zenbakian egin daiteke, goizeko 9etatik arratsaldeko 4etara eta gaueko 9etatik 10:30era bitartean. Erantzungailuan datu hauek utzi behar dira: izen-abizena, kluba, adina eta ELO. Izena ematea [derioxaketaldea.org](http://derioxaketaldea.org) webgune eta [derioxaketaldea@gmail.com](mailto:derioxaketaldea@gmail.com) helbide elektronikaren bidez ere egin daiteke, baita lehen aipatutako telefono zenbakira mezu bat aginduta ere. Inskripzioak 15 euro balio du; hala ere, federatuta daudenek 12 euro ordainduko dute, eta izena ematea doan izango da ELO>2300 kategoriakoentzat. Dirua kontu zenbaki honetan sartu behar da: BKB: 2095-0126-20-9101074776.

**On egin**  
Rafaela...  
94 455 63

**SAN LUGO**  
CLINICA  
94 455 63

**aldeko**  
hartz klinika  
Tel: 94 454 85 07  
Anuska Prieto Aguilar  
Odontóloga  
-Especialista:  
odontología